

# BEZaren ERAGINA ARTE ESZENIKOETAN, MUSIKAN ETA ZINEMAN

HURBILKETA KUALITATIBOA

2014ko APIRILA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



# BEZaren ERAGINA ARTE ESZENIKOETAN, MUSIKAN ETA ZINEMAN

HURBILKETA KUALITATIBOA

2014ko APIRILA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:  
1.a, 2014ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:  
[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena:  
IZO, Kulturaren Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz



## AURKIBIDEA

---

Sarrera	5
<hr/>	
1. Europako egoera	7
<hr/>	
2. Kulturaren gaineko BEZaren igoerak izan duen eragina ikuspegi kuantitatibotik	9
<hr/>	
3. Kulturaren gaineko BEZaren igoerak izan duen eragina ikuspegi kualitatibotik	12
3.1. Hasiera bateko iritzi edo usteak	13
3.2. Hartutako neurriak	15
3.3. Ikus-entzuleak	17
3.4. Programazioa	18
3.5. Ekoizpenak	19
3.6. Kulturak gizartean duen onarpena eta papera	20
<hr/>	
4. Ondorioak	21
<hr/>	
Bibliografia	24

---



## SARRERA

20/2012 Errege Dekretuak, 2012ko uztailaren 13koak, araudi berria ezarri zuen Balio Erantsiaren gaineko Zergarentzat (BEZ); horri jarraiki, ikuskizunetara eta zinemara joateko sarreren eta arte-lanen erosketaren gaineko zerga %8tik %21era pasa zen. Arte-lanei dagokienez, Gobernuak, 2014ko urtarrilaren 24ko Ministro Kontseiluaren akordio baten bidez, iragarri zuen arte-lanen salmentaren gaineko zerga BEZ murriztuaren tartera pasatuko zela (%21etik %10era pasatu zen), hau da, atzera egin zuen 2012an hartutako neurrian. Sortzaileek galeriei saldutako arte-lanei eragiten dio jaitsiera honek.

Beste ondasun eta kultura zerbitzu batzuetan mantendu egin dira zerga-tasak: oso murriztua paperezko liburuentzat eta aldizkako argitalpenentzat (%4); murriztua museoetara joateko (%8tik %10era pasatu da); eta orokorra liburu elektronikoentzat, CDentzat eta DVDentzat (%18tik %21era igo da).

Azterlan honetan arte eszeniko, musika eta zinema sektoreak aztertuko ditugu. Ikuskizun horietarako sarrerei aplikatutako BEZaren igoerak, Europan egindako handienak, eragin sakona izan du enpresengan. Neurria indarrean jarri ostean, bete egin dira neurriak sektore horietan eragin handia izango zuela baieztatzen zuten iragarpenak; gainera, sektore horiek lehendik ere kaltetuta daude krisiaren ondorioengatik eta kultura-ohituretan gertatzen ari diren aldaketengatik. Neurriak ikus-entzule jaitsiera nabaria ekarri du, eta, ondorioz, enpleguak suntsitu, eta beste kontzeptu batzuen arabera gauzatzen zen diru-bilketak ere jaitsiera izan du, hala nola Gizarte Segurantzaren, PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren bidez gauzatzen zenak.

Igoera horren eragina aztertzeko egindako ikerlanek agerian utzi dute, datu adierazgarriekin gainera, kultura industria kalte handia pairatzen ari dela. Oraingo honetan, egindako azterlan kuantitatiboak aipatzeaz gain, kultura-eragileen



ikuspegiak eta iritziak aztertu nahi ditugu sakonki, ikuspegi kualitatibo eta berariaz subjektiboa emateko. Neurria aplikatu zenez geroztik denbora igaro denez, jasandako golpea balioetsi dezakegu, bai eta hori saihesteko hartutako neurriak ere.

Alderdi baten interpretazioa da, musika, arte eszeniko eta zinema alorreko zenbait eragilek helarazi nahi izan diguten ahots gorako gogoeta. Alde batetik, ulertzen zail den neurriaren gaineko kexak eta ulertu ezina jasotzen dira, baina, bestetik, baita kultura industriak lehendik dituen eta BEZaren igoerak areagotu egin dituen arazo batzuen gaineko kritika ere.

Haien ekarpenei esker, sakonago aztertu eta hobeki ulertu ahal izango dugu zein den sektore horren egoera; sektorea, nahiko kaltetua dagoen arren, funtsezko termometroa da herrialde baten hozberoa neurtzeko.



Ikuskizunetarako eta kontzertuetarako sarrerei aplikatutako BEZaren zerga-tasa igotzeak aldaketa bikoitza ekarri du: BEZ murriztua (%8tik %10era pasatu da) duten produktu izatetik BEZ orokorra (%18tik %21era igo da) duten produktu izatera igaro dira. Igoera horrekin, Espainiak kulturari ezartzen dion zerga-politika urundu egin da Europako herrialde gehienek joeratik.

Ondasun edo zerbitzu jakin bati egozten zaion sailkapenaren arabera, zerga-tasa bat edo beste ezartzen zaio. Alegia, premia-premiazko ondasunei eta zerbitzuei tasarik baxuenak ezartzen zaizkie, eta luxuzkoei, berriz, altuenak. Hortaz, hartutako neurriak esan nahi du, ezarri beharreko BEZa 13 puntuan igotzeaz gain, kultura-zerbitzuak luxuzko ondasuntzat jotzen direla orain. Azpimarratzekoa da Portugalen gertatutakoa; Espainiakoa baino igoera handiagoa aplikatu zen hasieran (%6tik %23ra), baina denbora laburrean atzera egin eta %13an laga zen.

Europako joera nagusia da zerbitzu kulturei tasa murriztuak aplikatzea; 28 herrialdeen herenak baino ez die aplikatzen tasa orokorra. Tasa orokorra aplikatzen duten herrialdeetatik, bik baino ez diete ezartzen Espainiak baino ehuneko handiagoa ikuskizunetarako, kontzertuetarako eta zinemarako sarrerei: Danimarkak (%25) eta Hungariak (%27).

Tasa murriztua aplikatzen duten herrialdeei dagokienez, berriz, %5aren eta %15aren artekoak dira ehunekoak; horrek agerian uzten du premia-premiazko ondasuntzat jotzen dituztela, edo, behintzat, kontsumoa sustatzeko politiken beharra onartzen dutela.

Laburbilduz, %8tik %21era arteko igoera horrekin -13 puntuko igoera-, hau da, aplikatutako zerga-tasaren %162,5eko igoera, tasa baxuenak zituzten herrialdeen artean egotetik ikuskizunetarako, kontzertuetarako eta zinemarako sarrerengaineko zerga altuenak ezartzen dituzten herrialdeen artean egotera igaro da Espainia.



1. irudia. **Ikuskizunetarako eta zinemarako sarrerei Europar aplikatzen zaien BEZaren erkaketa. 2011-2013**

	2011	2012	2013	Aldakuntza	2013an aplikatutako tasa
Luxenburgo	%3	%3	%3	=	murriztua
Zipre	%15	%5	%5	↓	Murriztua
Malta	%5	%5	%5	=	Murriztua
Kroazia	-	%5 - %13 <sup>(1)</sup>		=	Murriztua
Holanda	%6	%6	%6	=	Murriztua
Belgika	%6	%6	%6	=	Murriztua
Suedia	%6	%6	%6	=	Murriztua
Frantzia	%5,5	%7 <sup>(2)</sup>	%5,5	↑ ↓	Murriztua
Alemania	%7	%7	%7	=	Murriztua
Polonia	%8	%8	%8	=	Murriztua
Eslovenia	%8,5	%8,5	%9,5	↑	Murriztua
Irlanda	%13,5	%9	%9	↓	Murriztua
Errumania	%9	%9	%9	=	Murriztua
Finlandia	%9	%9	%10	↑	Murriztua
Austria	%10	%10	%10	=	Murriztua
Italia	%10	%10	%10	=	Murriztua
Grezia	%13	%13	%13	=	Murriztua
Portugal	%6	%23	%13	↑ ↓	Murriztua
Txekiar Errepublika	%10	%14	%15	↑	Murriztua
Erresuma Batua	%20	%20	%20	=	Orokorra
Estonia	%20	%20	%20	=	Orokorra
Eslovakia	%20	%20	%20	=	Orokorra
Bulgaria	%20	%20	%20	=	Orokorra
<b>Espainia</b>	<b>%8</b>	<b>%21</b>	<b>%21</b>	↑	<b>Orokorra</b>
Lituania	%22	%21	%21	↓	Orokorra
Letonia	%21	%21	%21	=	Orokorra
Danimarka	%25	%25	%25	=	Orokorra
Hungaria	%25	%27	%27	↑	Orokorra
<b>Batez bestekoa</b>	<b>%12,3</b>	<b>%13,1</b>	<b>12,8%</b>		

Iturria: Europako Batzardea. *VAT Rates Applied in the Member States of the European Union.*

Oharrak: (1) %5 zinemarako sarrerentzat eta %13 kontzertuetarako sarrerentzat. (2) Oso tasa murriztua aplikatzen du arte eszenikoetako ikuskizun batzuen lehenengo 140 emanaldietan.





## KULTURAREN GAINEKO BEZAREN IGOERAK IZAN DUEN ERAGINA IKUSPEGI KUANTITATIBOTIK

# 2

Kulturaren gaineko BEZaren igoeraren eraginari buruzko azterlan nagusiak bi unetan egin dira. Hasieran, Gobernuak neurria iragarri zuenean, ustez izan zitzakeen eraginak aurreikusteko azterlanak egin ziren, eta, sektorearen eta Gobernuaren arteko negoziazioei ekin ahal izateko; oinarri zientifiko batetik abiatuta, proposamena berraztertzea zen helburua.

Bigarren fase batean, egindako azterketei eta aldizkajasotako estatistikei esker, balioespenak egin ditzakegu, ez aurreikuspenetan oinarritutakoak, baizik eta zerga-tasa berriak ezarri ondorengo lehenengo hilabeteetan izandako eragin errealean oinarritutakoak.

### Neurria aplikatu aurreko azterlanak

Espainiako Gobernuak zerga-tasa berria aplikatuko zuela iragarri zuenean, erantzun sendoa sortu zen kulturaren sektoretik. Neurria aplikatu aurreko erantzun horren esparruan, izan zitzakeen eraginak aurreikusteko hurbilketak egin ziren. Bi erreferentzia nagusiak dira ICC Consultores aholkularitza-etxeak Antzerki eta Dantza Enpresen Elkarteen Federazioarentzat egindakoa eta *PricewaterhouseCoopers* enpresak Zinema Banatzaileen Federazioarentzat eta Espainiako Zinemaren Federazioarentzat egindakoa. Bi azterlan horiek iragarri zuten tasa berriak oso eragin kaltegarriak izango zituela.

Zehazki, PricewaterhouseCoopers enpresak iragarri zuen Ogasunak zinemetako zerga-bilketan jasotakoa ia hamar milioi eurotan murriztuko zela, eta 859 areto (guztien %21) itxi behar izango zirela, eta, 3.500 enpleguren galera ekarriko zuela.

ICC Consultores enpresaren azterlanak (*Impacto del aumento del IVA en las artes escénicas en España*) honako aurreikuspen hau egiten zuen: gaur egun dugun testuingurua kontuan hartuta, arte eszenikoetan BEZaren zerga-tasa berria aplikatzeak eskaria %18,3 eta %22,7 bitartean murriztea ekarriko zukeen. Diru-bilketari buruzko datu absolututan, 50,9 eta 41,0 milioi euro bitarteko galerak ekarriko zituzkeen, eta sarrerei dagokienez, 2,3 eta 2,9 milioi ikus-entzule arteko galerak. Txosten horren arabera, fakturazioaren murrizketak eragin zuzena izango zukeen enpleguan: egiturazko



enpleguari dagokionez, 1.538 eta 1.909 lanpostu bitarteko galera aurreikusten zuen (%8,2 eta %10,2 bitarteko murrizketa). Gainera, enpresa ugari desagerraraztea ekarriko zukeen. Zehazki, sektoreko enpresen edota konpainien %20 desagertuko zatekeela estimatzen zen.

Azkenik, azterlan horrek neurria ez aplikatzea gomendatzen zuen; izan ere, balioespenen arabera, Estatuak BEZagatik izango zukeen sarrera-igoeraren eta horrek Estatuaren diru-kutxetan izango zukeen eragin negatiboaren arteko diferentziari dagokionez, diru-kutxa publikoentzako egoerarik okerreanean, 0,2 milioi euro gutxiagoko diru-sarrerak izango ziratekeen. Estatuarentzat egoerarik hoberenean, diru-sarrerak 5,5 milioi euro gehiago izango ziratekeen.

### **Neurria aplikatu ondorengo azterlanak**

Errealitateak agerian utzi du bere garaian egindako iragarpenak zuzenak zirela. Balioespenetan oinarritu beharrean datu errealetan oinarritzen diren zenbait azterlanek baieztatu dute neurriak eragin kaltegarri nabariak izan dituela sektore horietan. Azterlan horien artean, azpimarratzekoak dira ICC Consultores enpresak arte eszenikoen gainean egindako irizpena, Zuzeneko Musikaren Urtekaria, Kataluniako Musikaren Urtekaria eta SGAEn Urtekaria.

### **BEZaren igoerak arte eszenikoetan izandako eragin erreala**

ICC Consultores enpresak FAETEDarentzat egindako bigarren azterlanak dio BEZaren igoera dela 2012ko hirugarren lauhilekoan gertatutako ikus-entzuleen %55,6ko murrizketa eta diru-bilketa garbiaren %61,4ko murrizketa eragin izanaren arrazoi nagusia.

Horiek horrela, BEZaren eragina besterik kontuan hartu gabe, 2012ko hirugarren lauhilekoan %17,48ko jaitsiera izan zen ikus-entzuleei dagokienez, eta %20,20koa diru-bilketa garbiari dagokionez. Irizpenean azaltzen denaren arabera, 2012ko hirugarren lauhilekoan hasita, urtetik urtera izandako jaitsiera (%31,43koa ikus-entzuleetan eta %32,98koa diru-bilketan) sektorearen joeragatik, testuinguru-faktoreengatik eta alarma-efektuagatik gertatu zen.

Irizpen berak iragartzen zuen 2013an zerga-neurri hori aplikatzen jarraituz gero arte eszenikoen sektoreak %25 inguruko jaitsiera izango zuela urtero diru-bilketa garbiari dagokionez, eta, horrela, sistema jasangaitz bihurtuko zatekeela.

### **Zuzeneko Musikaren Urtekaria 2013**

Zuzeneko Musikaren 2013ko Urtekarian, Musika Sustatzaileen Elkarteak egindakoan, azaltzen da zuzeneko musikak 25 milioi euro galdu zituela, irailtik abendura, aurreko urtearekin alderatuta, eta, beraz, diru-bilketa garbia %28,92an murriztu zela. Urtekarian,



gainera, zuzeneko musikaren alorreko zenbait adituren eta eragileren iritziak jasotzen dira, eta, horietan, zehaztasunez adierazten dituzte sektorearen egungo zailtasunak; BEZaren igoera dela egungo egoera eragin duen faktore garrantzitsuenetako bat diote.

### **Kataluniako Musikaren Urtekaria 2013**

Enderrock Taldeak Kataluniako Musikaren Urtekaria egiten du urtero, eta XII. edizioan BEZaren igoeraren eraginak aztertzen ditu luze eta zabal. Kataluniako Kontzertu Aretoen Elkartearekin (*Asociación de Salas de Conciertos de Cataluña* – ASSAC) lankidetzan, egindako ikerketaren emaitzak aurkezten dituzte.

Zehazki, urtekarian diote kulturaren gaineko BEZaren igoerak 12 milioi euroko galera ekonomikoak eragiten dituela urtero zuzeneko musikaren industrian; eta adierazten dute, gainera, galera horietan ez direla kontuan hartu azkenean egiten ez diren kontzertuekin lotutako jarduerari buruzko datuak.

Horiek horrela, txostenaren arabera betiere, zuzeneko musikaren industriaren fakturazioa %5 inguru murriztu zen 2012an, zerga-tasa berria aplikatu eta lehenengo lau hilabeteetan, eta 2013an jaitsiera %17ra helduko zela aurreikusten zen; zenbaki absolututan, 124 milioi eurotik 90 milioi eurora jaistea.

### **SGAEren Urtekaria 2013**

Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiaren (SGAE) 2013ko urtekarian ere BEZaren igoera funtsezko faktoretzat jotzen da arte eszeniko, musika eta zinema alorrean ikus-entzule eta fakturazioan izandako jaitsierari dagokionez. Txostenean ez da bereizten BEZaren eragina datu kuantitatiboetan, baina neurri hori etengabe aipatzen da ikus-entzuleei eta fakturazioari dagokienez izandako jaitsieretan faktore erabakigarri gisa. Urtekarian, 2012ko eta 2008ko datuak alderatzen dira, eta hona hemen emaitzak:

- **Arte eszenikoak:** emanaldi-kopurua %26,9 murriztu zen orduz geroztik, bertaratzea %31,4, eta diru-bilketa %20,2.
- **Musika:** musika herrikoia kontzertuetako bertaratzei eta diru-bilketari dagokienez, makro-jaialdiak alde batera utzita, 2008az geroztik %27,1 murriztu zen ikus-entzule kopurua, eta diru-bilketa, berriz, %13,4 2009az geroztik, urte horretan heldu baitzen puntu gorenera. Adierazten du, gainera, kontuan hartu behar dela 2012ko datuetan BEZaren tasaren %8tik %21era bitarteko igoera barne hartzen dela diru-bilketari dagokionez, eta, beraz, diru-bilketa garbia askoz ere gehiago murriztuko zatekeela.
- **Zinema:** urtekariaren arabera, 2008arekin alderatuta, saio-kopuruak %11 egin zuen behera, ikusle-kopuruak %13,5 eta diru-bilketak %1,9 (jaitsiera hori %9,7ra heltzen da 2009rekin alderatuz gero, ordukoa izan baitzen puntu gorena.



## KULTURAREN GAINEKO BEZAREN IGOERAK EAEN IZAN DUEN ERAGINA IKUSPEGI KUALITATIBOTIK

# 3

Atal honetan arte eszeniko, musika eta zinema arloetako eragileen iritziak jaso ditugu, horietan izan baitu BEZaren igoerak eraginik handiena. Hain zuzen ere, EAEko antzoki, arte eszenikoetako ekoizle, musika ekoizle, zuzeneko musika-areto pribatu eta zine-aretoetako ordezkariari egin dizkiegu elkarrizketak.

Telefono bidezko bost elkarrizketa sakon gauzatu dira. Galdesorta erdi-egituratu bidez, BEZaren igoerak sektore horien egoeran duen eraginari buruzko iritziak jaso dira. 2014ko otsailean galdera ireki bidez egindako elkarrizketak, ondorengo gaitan sakontzeko asmoz gauzatu dira.

- Zenbaterainoko eragina du BEZaren igoerak? eta, zenbaterainokoa beste elementu batzuk? esaterako, azken urteotako beheranzko joerak, gastu murrizketa eta abarrak. Litekeena ote da kontsumoa jaisteko «alarma-efekturen» bat sortu izana?
- Zenbaterainoko eragina du sarrera erosketetan? Moteldu egin dela ikusten da? Ikus-entzuleek azken uneraino itxaroten dute erosteko?
- Zer neurri ari dira hartzen kontsumoa mantendu edota areagotzeko?
- Zenbateraino baldintzatzen du programazioa kalitatea eta arriskuari dagokionez?
- Zer eragin du publiko desberdinetan? Arloren baten eragin nabarmenagoa izan duela ikusten da? Zeri leporatzen diote?
- Zenbateraino eragiten dio sorkuntza-ekoizpenari?
- Gizarteak kulturaz duen iritzian ere eragina ote du?
- Nola ikusten dute lan etorkizuna?

Dituzten balorazioak ez dira haien kolektiboen iritzizat jo behar, norbanakoen iritziak biltzen saiatu baikara. Fase kualitatibo honetan bildutako iritziek egun bizi duten errealitatea aztertzen dute sakonki. Musikaren, arte eszenikoen eta zinemaren alorreko langileek duten ikuspegiari egindako hurbilpenak dituzten argudioak ezagutu eta gogoaldatea azaltzeko aukera ematen digu.





«Minaren gainean zauria», «hori besterik ez genuen behar», «ezpata-kolpea», «sastakaia» edo «azken kolpea» moduko esamoldeek agerian uzten dute nola sentitzen diren kultura alorreko langileak BEZaren igoeraren eraginari dagokionez. Ulertzen zaila da neurri hori, eragin kaltegarriak izan baititu sektorean, ikus-entzuleengan, eta baita ikuspegi politikotik ere; izan ere, elkarrizketatutakoen iritziz, neurri horrekin ez du inork irabazi. Horiek horrela, kostu ekonomikoa, soziala eta politikoa izugarria da eskuratutako zerga-bilketarekin alderatuta.

Ondorioz, lehenengo ustea da kulturari ezarritako zigor politikoa izan dela, Espainiako Gobernuaren indar-erakustaldia, eta sektoreari kalte eragiteko baino ez duela balio izan kultura-sektorea are gehiago ahultzeko, kultura ehunaren zati handi batentzat lehendik ere larria zen unean. Neurria bidegabekoa eta eraginkortasunik gabekoa dela iruditzen zaie, eta lortu nahi zuenaren kontrako eragina erdietsi duela.

Zaila izanik ere, irakurketa positiboa emate aldera, batzuek uste izan dute sektorean hautespen naturala eta garbiketa egiteko balio izango zuela agian, nahiz eta horrek konnotazio asko izan.

Etorkizuna oso ilun ikusten dute. Ez dugu lehenengo egoera berreskuratuko, neurria kenduta ere. Kulturaren alorrean ez dago atzera bueltarik, galera atzeraezina da, eta ez enpresen ikuspegitik soilik, baita kultura nortasunaren ikuspegitik ere.

Sektorearen egoera hobetzeko beste neurri batzuk behar direla azpimarratzen dute. BEZaren jaitsiera ez litzateke nahikoa izango kultura industriak bizi duen krisialdirako, baina arazoa arintzen lagun lezake. Eta jendeari kemena eta adorea emateko balio lezake.

### 3.1. **Lehenengo uste edo iritziak: krisialdia + BEZ = hondamendi orokorra**

Krisialdiaren eta BEZaren igoeraren arteko batura kultura industriarentzat ondorio nabarmenak izaten ari da. Enpresa asko itxi dituzte, enplegu ugari suntsitu da, eta, ogasun publikoaren zerga-bilketari dagokionez, ez dira aurreikuspenak bete. Aurrera jarraitzen dutenek zailtasun ugari egiten dute aurrera; izan ere, alde batetik, jarduera nabarmen murriztu da gastu pribatua eta publikoa murriztu direlako, eta, bestetik, batzuetan kostu horiek ez dute prezioan eragin, eta, beraz, irabazi-tarteak urriak dira unetan.

Ibilbide luzea eta onarpen handia duten programatzaileek eusten diote hobekien, ikus-entzule leial eta egonkorrak dituztelako, eta krisialdiaren eragina gutxiago jasan duten kolektiboek zuzendutako programazioak dituztelako, baina, kasu horietan ere, eragina ikaragarria eta izugarria izan dela diote. Elkarrizketatutako baten hitzetan, laguntza publikorik ez izateak eta BEZaren igoerak jarduera-murrizketa egoera honetan pixkanaka moldatu ahal izatea eragotzi dute.



Azken batean, iragarpenik okerrenak ere betetzen ari dira. Neurri horrek areagotu egin ditu hainbat arrazoi dela eta kultura sektoreek duten egoera zaila.

### **Neurriaren garrantzia beste faktore batzuei dagokienez**

Ez da erraza azken bost urteotan bizi dugun krisi egoeran eragiten duten gainerako faktoreetatik berreiztea neurri honen eragina. Izan ere, faktore horiek estu-estu lotuta daude elkarren artean, eta, gainera, sektore guztiek ez dute egoera bera bizi. Aztertutako esparruek ezaugarri desberdinak dituzte, egituren, ekonomian, teknologian eta gizartean.

Alde batetik, gastu publikoarekiko mendetasun handia dutenei dagokienez, hala nola musikari (musika klasikoa bereziki) edo arte eszenikoei, BEZaren igoerak garrantzi txikiagoa izan du ikus-entzule eta fakturazio murrizketan, egiturei eta programazioei laguntzera zuzendutako aurrekontu publikoen murrizketak baino. Horren adibide garbi dira EAEko eszenatokiak; erkidego honetan kultura-arloko gastu publikoa beste erkidego batzuetan baino gutxiago murriztu denez, bertako eszenatokiak estatuko gainerako konpainien erakustoki bihurtu dira, horiek zailtasun handiak baitituzte azken urteotan krisiaren eragin sakonagoa jasan duten erkidegoetako antzokietan kontrata ditzaten. BEZaren igoerak guztiei eragiten die berdin, baina gastu publikoaren murrizketak ez.

Merkatuarekin lotura handiagoa duten eta zuzenean ikus-entzuleen mendekoak diren sektoreetan (musika- eta zinema-areto pribatuak), kulturaren gaineko BEZarekin batera, beste faktore batzuk ere badira ikus-entzule gehiago edo gutxiago izateko eragina dutenak: kontzertuei dagokienez, garraioa (kostuagatik eta alkoholemiaren kontrako kanpainengatik, gero eta jende gutxiago joaten baita udalerritik kanpo, eta horrek ere badu bere eragina programazioan); zinema arloan, pirateria; ikus-entzuleek zinema nazionalarekiko interesik eza; negozioari eusten laguntzen dioten jardueretan gastu gutxiago izatea, etab.

Ikus-entzule kopuruan zuzenean eragiten duten faktore horiez gainera, garapen teknologikoarekin lotutako beste batzuk ere badira. Horren adibide da zinema-aretoek egin behar izan duten eraldaketa eta trantsizio digitala; EAEn izan ezik, zinemek haien kasa gauzatu behar izan dute prozesu hori. Areto askok ezin dute egin 50.000 edo 60.000 euroko inbertsioa laguntza publikorik gabe. Trantsizio digital horrek kalte egin die banatzaile txikiei, banatzaile amerikar handiek ezartzen dituzten baldintzak eta eskala-ekonomiak direla eta. Azkenik, eta zinemarekin jarraituz, gogoan hartu behar da areto bat irekitzeko kostua handiagoa dela hemen beste herrialde batzuetan baino: filmen kostu handiagoa %8-%10ean; energiaren prezio altua, European baino garestiagoa, eta aretoetan kostu handia eragiten duena; eta langile-kostuak, baina horiei dagokienez ez dago alderik beste herrialde batzuekin alderatuta. Horregatik guztiagatik, diru-galera sortzen da alde guztietatik.



Beraz, oso zaila da kuantifikatzea diru-sarreraren jaitsieraren zer zati izan den BEZaren igoeraren ondorioz, eta hori kultura-industriek bizi duten egoera zailean eragiten duten beste elementu batzuek bereiztea. Dena den, elkarrizketatutakoak bat datoz igoerak eragin kaltegarri garbia izan duela diotenean, baina ez dirudi bizi duten krisialdiaren faktore nagusia denik. Lehen gaizki eta orain gaizki eta erdi ez ote diren deritzote.

### **Alarma-efektua, sektorearen beraren akats estrategikoa**

Era berean, ez da erraza zerga-igoerarekin lotzen den kostu-pertzepzioak sortzen duen alarma-faktorea neurtzea, baina, zalantzarik gabe, sortutako iritzi-egoerak ez zuen kultura kontsumitzea sustatzen. Benetan bitxia da irudipen hori sortu izana igoera horrek askotan sarreraren prezioan eragin ez arren.

Gehienek uste dute bistakoa dela izualdi orokor bat izan zela, baina egiaztatu da gero arintzen joan dela eta ikus-entzuleak beren ohituretara itzuli direla. Alarma-efektuaren eragina nabaria da, adibidez, 2012ko laugarren hiruhileko sarreraren salmentak izandako jaitsieran; batzuetan %30ean ere murriztu zen irailean neurria indarrean sartu arte izandako joerarekin alderatuta. Bistakoa da igoerak oso eragin kaltegarria izan zuela ikus-entzuleengan, bai eta programazioan ere, ikuskizun gehiago utzi baitziren bertan behera. Gerora, 2013an zehar, urak bere onera etorri zirela ikusi da. Ikus-entzuleak ohitu eta betiko ohituretara itzultzen dira.

Batzuek adierazi dute 2013an lehengo diru-bilketa gordina berreskuratu dutela, baina bistakoa da diru-bilketa garbia asko urritu dela. Litekeen irtenbide bakarra da gastuak ahal den gehien doitzea, egoera honetatik onik ateratzeko. Baina hori nolabaiteko marjina dagoenean baino ezin egin daiteke, txikia bada ere. Zoritxarrez, guztiek ezin dute gastua beren gain hartu, galeratan sartu gabe.

### **3.2. Hartutako neurriak**

BEZaren igoerari aurre egiteko hartutako neurriak bi norabidetan laburbil daitezke:

- Sortzaileek, konpainiek eta ekoizleek beraien katxeak murriztu egin dituzte BEZaren igoera konpentsatzeko.
- Sustatzaileek, programatzaileek eta zinema-aretoetako enpresaburuek sarreraren prezioaren igoera beren gain hartu beharra izan dute (gutziz edo zati baten), edo prezioa igo (eta horrek ikus-entzuleak gutxitzea dakar).

Batzuetan, eskaintzak eta sustapenak gauzaten dira ikus-entzuleak leialtzen saiatzeko eta aurrez erostea bultzatzeko. Zuzeneko musika aretoek beste neurri batzuk ere hartu dituzte, hala nola musika-programazioa beste jarduera batzuekin osatzea ez dadin «betiko bezalako kontzertua» izan.



Azpitarratzekoa da industria ahalegin handiak egiten ari dela, bakoitza bere tokitik, eta igoerak azkenean ikus-entzuleengan eraginik ez izateko ahaleginak egiten ari direla. Hain zuzen ere, arte eszeniko eta musika sektoreetan prezioak jaisten joan dira azken urteotan. Arazoa da BEZ igoera krisialdi-garaian egin zela, eta zinema-aretoei dagokienez, ez zuten hori beren gain hartzeko ahalmenik, eta, beraz, sarreren prezioak igo behar izan zituzten.

Elkarrizketatuek diotenez, sektoreak aurrera jarraitzen du bokaziozko lana delako, eta jendea sakrifizio handiak egiteko prest dagoelako jarduerari eustearren. Eta, halere, enpresa ugari galerak dituzte.

Ondoriozta dezakegu hartutako neurrietako edozein epe luzean mantentzen zail dela egungo egoeran.

### **Prezio-politikak, bi ahoko arma**

Zinemaren jaia –sarrerak erdi prezioan jartzea– eta antzeko neurrien inguruan eztabaida sortu da, eta agerian geratu da horrelako estrategiak arriskutsu suerta daitezkeela. Kontuan hartu behar da oso zaila dela prezio-politikak gauzatzea film, kontzertu edo ikuskizun jakin batzuen emaitzekin lotutako negoziotan.

Zinema sektorean duten iritzia da azkenean kaltegarriak izan direla, sarrerak 3 eurotan jarritz gero aretoak bete egiten direla dioen mezua zabaltzen delako, eta, hori ikusita, ikus-entzuleek beren buruari galdetzen diotelako zergatik ez ote diren sarrerak prezio horretan jartzen urte osoan. Ikus-entzuleei iruditzen zaie gainerako egunetan nahi ez dutelako ez dituztela prezioak jaisten. Eta neurria zinema garestia edo merkea den eztabaidagai bihurtzen da.

Negoziaren ikuspegitik emandako erantzuna garbia da: aretoak betetzeak ez du jaitsiera berdintzen. Ez da ahaztu behar une bateko ekintzak direla, eta ezinezkoa dela horiek urte osoan mantentzea prezio horiek jartzeko marjinarik ez dagoelako.

Beraz, honako paradoxa hau sortzen da: itxuraz arrakastatsua izandako ekintza bat sektorearen kontra jartzen da, eta agerian geratzen da prezioarekin jokatzeko aukera oso mugatua eta oso arriskutsua dela. Une bateko ekintzak dira, eta ezin dira luzaro mantendu.

### **3.3. Ikus-entzuleak**

Datuek eta elkarrizketatutakoek adierazten dute azken urteotan nabarmen murriztu dela ikus-entzule kopurua, eta, eskaintza jakin batzuetan, erdira ere murriztu dela. Joera horrez gainera, kontuan hartu behar dira elkarrizketatuek aipatutako honako bi egoera hauek: ohiko ikus-entzuleak gutxiagotan joaten dira ikuskizunetara, kontzertuetara edo zinemara, eta, beste alde batetik, belaunaldi-arteko ordezkaterik ez da ematen, ez eta kulturarako ikusle berriak sortzen.





## **Prezioaren gaineko pertzepzioa. Zenbat kostatzen den balioestea**

Aurreko puntuarekin lotuta, ikus-entzuleek prezioaren eta sarrera bat erostean ordaintzen dutenak duen kostuaren inguruko pertzepzioa hartzen du ardatz ikus-entzuleei buruzko lehenengo gogoetak. Elkarrizketatuek diote sarreraren prezioa igo ez bada ere, ikus-entzuleek ez dutela uste prezioa doituta dagoenik, ez eta batzuetan jaitsi egin denik ere. Gainera, ez dakite zer kostu duen zuzeneko ikuskizun batek, ez eta igoerak zer eragin izan duen balio-katea osatzen duten eragileengan. Gauza bera esan dezakegu zinemari dagokionez ere.

Ikus-entzuleek ez dakite zer dagoen atzean oihala zabaltzen denean, edo kontzertu batera edo zinemara joaten direnean, eta horrek ikusten ari direna garestia edo merkea den pentsatzerakoan azaleko interpretazio bat ematea eragiten du. Gauza ez da pena sorraraztea edo kexatzea, informazioa ematea baizik, eta lan pedagogikoa gauzatzea ikusten dutena dagokion neurrian balioetsi dezaten.

Beste ikuspegi batetik, BEZaren igoerak prezioan eragin ez duenetan, geure buruari galde diezaiokegu ea zerga jaitsez gero ikus-entzuleek ez ote duten espero izango prezioak ere merkatzea. Hauxe da hain zuzen ere ikus-entzuleek prezioa dela eta zer espero duten ezagutzen ez dugun beste alderdietako bat.

## **Ikus-entzule gazteen berezitasuna, ohiko eskaintza alde batera uztea**

Guztiak diote ikus-entzule gazteenek (17tik 30 urtera bitartekoek) pairatzen dituztela gehien krisialdiaren ondorioak. Hori diote musika eta zinema esparruetan. Adibide gisa aipa dezakegu populazio-segmentu horri zuzendutako blockbuster (arrakasta komertzial handiko ekoizpen handiak) amerikarren porrota, Europako beste herrialde batzuetan gertatu ez bezala (2 milioi ikusle beste herrialde batzuetan, eta erdia hemen).

Gainera, litekeena da profil hori beste aisialdi-aukera batzuk hautatzen aritzea, adibidez, dj saioak eta areto edo dantzaleku batzuen eskaintzak, edo, zinemari dagokionez, pirateria jardueretarako aukerarik gehien dutenak.

Ikus-entzuleen profilari dagokionez, azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela belaunaldi-artearen erreleboa bermatzea. Ezinbestekoa iruditzen zaie sentsibilizazioa, prestakuntza eta hedapena lantzea.

## **Planifikatutako kontsumo kulturaletik inprobisatura**

Elkarrizketatuei galdegin diegu ea krisialdiak eta BEZaren igoerak sarrerak erosteko modua aldatu duten, eta iritzi desberdinak bildu ditugu horren inguruan; batzuek diote lehen gehiago saltzen zela aurrez, eta beste batzuek ezetz. Alde batetik, lehen aurrerapen



handiz (6 hilabete) erosten zutela diote, ikus-entzuleei ez zitzaielako axola gero sarrera «galtzea» joan ezin bazuten. Horiek horrela, sustapena areagotu eta sendotu zezaketen, aurretiazko salmenta aurreikusitakoa adinakoa ez bazen. Orain azkeneko astean erosten da, eta, beraz, arriskua handiagoa da, eta beste urte batzuetan baino ikuskizun gehiago uzten dira bertan behera.

Alabaina, beste batzuek diote ez dutela alde handirik ikusi horri dagokionez, ikus-entzuleek beti erosi izan dutelako berandu. Azken unera arte itxaroten da, eta salmentak azken egunean eta azken orduan ugaritzen dira. On-line salmentako zerbitzua ahal bezainbat luzatzen dute, egun bereko arratsaldeko 7ak arte, eskari horri erantzun ahal izateko. Azken orduan erostea bultzatzen duen faktoreetako bat izan daiteke gailu mugikorretatik eros dezakegula orain.

### 3.4. Programazioa

Zalantzarik gabe, ikus-entzuleak jaistek kalte egin dio programazioari. Hori bai, era desberdinean eragin dio sektore bakoitzari.

#### **Musika, arriskua txikiagotzea**

Kontzertuen kalitate teknikoa ez da murriztu, aretoak ongi kokatuta eta espezializatuta baitaude. Batez ere programazioari eragin dio, ezin dutelako arriskatu. Hiriburuetako aretoek soilik jar dezakete programazio berritzaile edo ausartagoa, entzuleria potentzial handiagoa eta anitzagoa dutelako udalerrri txikiak aretoek baino.

Sortu berri diren taldeen eta talde txikien kontzertuek nabaritu dute gehien. Biziraupen-kontua da, gastuak ziur estaliko dituzten haiek baino ez baitira kontratatzen, onarpen handia dutenak, eta, beraz, beti talde berak errepikatzen dira. Elkarrizketatuen iritziak, euskarazko musika desabantaila-egoeran dago, gastu publikoa murrizteak kontratazioak gutxiagotzea ekarri baitio.

#### **Antzerkia, ikuskizunek denbora gutxiagoz irautea**

Ikuskizun bakoitzeko emanaldi kopurua murrizten joan da; lau emanaldi egiteak (ostegunetik igandera) bi egitera pasatu dira. Ohiz kanpokoak da ikuskizun berak hiru emanaldi egitea (ostiraletik igandera). Orain ez dira saio bikoitzak programatzen, ezta festetan ere, eta ez da eskaintza handiagoa delako, ikusleak antzokira gutxiago joaten direlako baizik. Hiri ertain edo txiki horien ezaugarrietako bat da, ikuskizunak horren egun gutxitarako programatzen direnez, «ahoz ahokoak» ez duela funtzionatzen, Madrilan edo Bartzelonan gerta daitekeen eran.

Programazio-motari dagokionez, antzoki bakoitzak nolabaiteko espezializazioa du. Azpimarratzekoa da familia-antzerkia beste genero batzuk baino hobeto mantendu dela (eskoletako ikusleei esker eusten dio); helduentzako antzerkiak pairatu du kalterik handiena.



## Zinema, kontsumo handiaren eredutik merkaturatzeko modu berrietara

Beste herrialde batzuetan, zinema ikus-entzuleen kopurua aldakorra da; handiagotu edo txikiagotu egiten da programatzen diren filmen arabera, eta oso lotuta dago zinema nazionalarekin (adibidez, Frantzia, Alemania edo Italia). Espainian, joera beheranzkoa izan da azken urteotan, eta etenik gabeko jaitsiera dela esan genezake. Mota guztietako filmei eragiten die jaitsiera, blockbuster filmetatik hasi eta autore-zinemara arte.

Nabaria da zinema espainiarrak garrantzi txikia duela, ez baitu sarrera-salmentaren %15 gainditzen. Ikus-entzuleen zaletasun falta hori gertatzen da, alde batetik, pirateriaren onarpen sozial eta praktikoagatik –horren erakusgarri da deskargatzeko legez kanpoko atariak irabazi ugari izatea Filmin edo antzeko plataformekin alderatuta–, eta, bestetik, auto-kritika egitea falta zaiolako balio-kate osoari eragiten dion industriari. Merkataritza-guneetako zinemen booma izan zen behar adinako ikus-entzulerik izan gabe; banaketa-baldintzek filmen kostua garestitzen dute beste herrialde batzuekin alderatuta, eta ekoizleak ikusleen interesik pizten ez duten filmak sortzen dituen sistemarekin ohitu dira.

Eskaintzari buruzko gogoeta nagusi gisa, auto-kritika gauzatzen duten batzuek diote denetik asko kontsumitu nahi dugula; gehiegi dago denetik. Behar asko sortzean eta kontsumoan oinarritzen den sistema batean gaude. Eta horrek kulturari ere eragiten dio. Eskaintza gehiegi dagoela ere esan genezake.

### 3.5. Sortzaileak eta ekoizpenak

Sortzaileek eta ekoizpenek ere zuzenean pairatzen dute programazioa dela eta aipatutako joeren eragina. Beraz, musikaren alorrean, tokiko taldeek eta sortzen ari direnek ez dute ia abian jartzeko aukerarik. Hori oso arriskutsua da, euskal eszenan ez baita ordezkorik izango euskal musika talde sendoenen garaia pasatzen denerako. Horrek nortasun kulturalaren galera larria ekarriko du.

Ekoizpen eszenikoari dagokionez, konpainia guztiek daude erasanda, salmenta handiak dituztenak izan ezik. Katxe ertain-altuak (10.000 eurotik gorakoak) dituzten ikuskizunak dira kaltetuenak. Pentsatzekoa denez, sinplifikatu egin dira muntaketak antzezle-kopurua, eszenografia, argi-diseinua eta abarri dagokienez. Egoera honen «abantaila» da antzerkiaren muinera itzultzen ari garela, eta ikuskizunei mesede handirik egiten ez zieten eta funtsezko ez ziren elementu ikusgarriak kentzen ari garela.

Katxeak negoziatzea ohiko bihurtzen ari da (%10-%20ko jaitsierekin). EAEn, beste lurralde batzuen aldean, hitzartutako katheen jaitsierak ez dira hain nabariak, eta, beraz, estatuko gainerako konpainiak gehiago programatzen ari dira bertan.



Beste eragin posible bat da merkataritzakoak ez diren kolektiboek (elkartek...) zeharkako mesedea jasotzen dutela. Elkarrizketatuen iritziz, konpainia profesionalak (enpresak) dira kaltetuenak.

Zinemari dagokionez, Espainian ekoizpen-arazo handia dago: eredia aldatu da ordezko sistemarik izan gabe. Beraz, edonola gauzatu dugu aldaketa hori, kalitateak okerrera egin du eta kolapsoa izan dugu ekoizpenean. Horrek ikus-entzuleak nekatzea ekarri du nolabait.


### 3.6. Kulturak gizartean duen onarpenera eta papera

Kulturaren gaineko BEZa igotzeak, eta, zehazki, politikari batzuek igoera defendatzearen kultura entretenimendu hutsa dela esan izanak ez dio mesede egin gizartean duen onarpenera hobetzeko orduan. Edonola ere, batzuek uste dute neurriak eragin handiagoa izan duela kultura-munduaren barnean eta sektorean ikus-entzuleen artean baino, azken horiek ez baitaude jakinaren gainean eta ez baitaude behar adinako informaziorik. Behin eta berriro diote ikus-entzuleen hezkuntzan eta prestakuntzan dagoela arazoa. Hori denboran zehar luzatzen den eragozpena da, eta epe luzean etengabeko lana egitea eskatzen du.

Horren guztiaren alde txarretako bat da arrazoi ekonomikoengatik ikuskizunetara joateko aukerarik ez dutenez, ikus-entzuleek «ez zaiela interesatzen» diotela. Pentsamolde hori zabaltzen ari da eta kulturaren onarpen sozialean eragiten. Eta aisialdian beste jarduerak batzuk gauzatzea ere badakar honek. Elkarrizketatu batzuen iritziz, duela 30 urteko erabilera eta moduetara itzultzen ari gara: etxean gelditu, telebista ikusi eta paseatu.

Eta, zalantzarik gabe, herritarren errenta-maila kontuan hartu gabe aplikatzen den igoera oztopo bat da kultura demokratizatzeko. Kultura politiken baieztapenetako bat da kultura eskuratzeko aukerak bermatu behar direla berdintasun- eta unibertsaltasun-printzipioekin bat. Bada, zergaren igoera hori oztopo bat da, batez ere errenta baxuenak dituztenek jakintzaz eta kulturaz gozatzea eta horiek jasotzea eragozten baitu.





- **Kultura luxuzko ondasun**

Europako herrialde gehienetan, kultura sektoreak oraindik ere babestu egiten dira BEZaren tasa murriztuen bidez; herrialde guztien heren batek soilik aplikatzen du tasa orokorra. Tasa orokorra aplikatzeak esan nahi du kultura zerbitzuak luxuzko ondasuntzat jotzen direla. Zeharka, kultura zerbitzuek berariazko sustapen- eta laguntza-politikarik ez dutela behar pentsaraztera garamatza erabaki horrek.

- **Kultura eskuratzeko aukera eta kultura-aniztasuna: bi oinarri kaltetu**

Denentzako igoera bera duen BEZaren moduko zerga igotzeak modu nabarian mugatzen du errenta baxuenak dituzten familiek eta herritarrek kultura eskuratzeko duten aukera, askoz gehiago eragiten baitie.

Beste alde batetik, kultura-aniztasunari ere kalte garbia eragiten diote horrelako neurriek, programazioan ikusi ahal izan dugun moduan. Zalantzarik gabe, euskarazko kulturari ere egiten dio kalte, eta horrek jakina nortasun-galera dakar.

- **Datuek diotena**

Eraginaren edo inpaktuaren gaineko azterlanen arabera, BEZaren igoerak eragin nabarmenak izan ditu kontsumoan eta fakturazioan. Zaila da eragin hori banakatzea –neurria aplikatu osteko azterlan bakar batek proposatzen du hori banakatzeko metodo bat–, baina, edonola ere, ezegonkortasuna sorrarazten duen faktore garbitzat jotzen da beti. Datuek agerian uzten dute honako hau: kultura-industria zailtasunak izaten ari den garai hauetan (testuinguru sozialarekin zein kultura-kontsumoaren ereduak aldatzearekin lotutakoak); neurria gainkarga handia da, eta, gainera, ez du oso aldeko eraginik ogasun publikoaren diru-kutxetan.



- **Neurriak sektore guztiei eragiten die**

Neurri horrek ia sektore guztiei eragiten die (paperezko liburuei eta egunkariei izan ezik, horientzako oso tasa murriztua mantendu baita, eta beste horrenbeste gertatzen da museoetarako sarrerekin ere, horientzat ere oso tasa murriztua mantendu delako), eta, beraz, agerian uzten ditu kultura-sarea zeharka gurutzatzen duten arazo komunak. Sektore desberdinetako elkarte, kolektibo eta taldeak BEZa igotzearen aurkako ekimen bateratuak egin izanak agerian uzten du kulturaren esparru osoari eragiten dioten arazoei aurre egiteko zeharkako gune bateratua sortzeko beharra dagoela. Honako gai hauek sektore guztietan eragiten dute: finantziazioa eta zergak, teknologia berriekin sortu diren kontsumo-modu eta kultura ohitura berriak, ikusleen bilakaera, prestakuntza eta sentsibilizazioa, etab.

- **Sektore bakoitzaren ahultasunak areagotzen ditu**

Krisialdia arantzasz beteriko bide izaten ari da kulturako sektoreentzat. Baina bakoitzak bere arazoak ditu, eta zerga-tasa %21era igotzeko erabakiak areagotu egin ditu musikaren, arte eszenikoen eta zinemaren arazoak eta berezitasunak. Azterketan parte hartu duten eragileen iritziz, kasuan-kasuan, zaurian zirikatzeke balio izan du erabakiak. Hortaz, gobernuak atzera egin eta lehengo egoerara itzuliko bagina ere, sektore bakoitzaren beharretara egokitutako bestelako neurririk gabe, zaila izango litzateke azken urteotako arazoak konpontzea.

- **Ikus-entzuleei informazioa emateko beharra**

Azterlanean, arte eszeniko, musika eta zine ordezkariekin izandako elkarrizketen ondorioetako bat da ikus-entzuleek ez dutela behar adinako informaziorik sarrera bat erostean ordaintzen dutenak duen kostuaren gainean. Are bitxiagoa da sarrerak garesti izategatik kexatzea, nahiz eta badiren urte batzuk prezioak igo gabe. Bistakoa dirudi pedagogia soziala egin beharra dagoela, kontzertu, zuzeneko ikuskizun edo zinema-areto batean ikusitako film baten atzean zer dagoen jakinarazteko.

Prezio hutsarekin lotutako propaganda-kanpainak beste arrisku garbia izan dezakete informazio egokiaz lagundu ezean, alegia, industriaren kontra jar daitezkeela.



- **Ikusle berriak sortzea**

Elkarrizketatuen iritziz, ikus-entzule kopurua murriztu izana ez da une bateko egoera, sakonera handikoa baizik. Badago zer pentsatu ikus-entzuleek oro har kultura-adierazpenekiko eta, bereziki, norberaren kulturarekiko, duten interes-faltaren inguruan. Behar-beharrezkoa da sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana gauzatzea kulturarako ikusle berriak sortzeko.

Garbi ikusten da neurriak gehien eragindako kolektiboen artean aurkitzen direla ikus-entzule gazteak, eta horiek ohiko eskaintza alde batera uzteko joera dutela. Kolektibo horrekin egin behar da, hain zuzen ere, lanik handiena, orain arte erabilitakoak baino ikuspegi berritzaileagoekin lan egin ere.



## BIBLIOGRAFIA

- ICC Consultors (2012), *Impacto del aumento del IVA en las artes escénicas en España*, Federación de Asociaciones de Empresas de Teatro y Danza-k (FAETEDA) eskatutako txostena.  
Online eskuragarri: <http://ep00.epimg.net/descargables/2012/09/19/36cd71058826aa76c5b3b55a576231bb.pdf>
- ICC Consultors (2013), *Impacto real del aumento del IVA en las artes escénicas en España en los primeros meses de su aplicación*, Federación de Asociaciones de Empresas de Teatro y Danza-k (FAETEDA) eskatutako txostena.  
Online eskuragarri: [http://www.sgae.es/recursos/boletines/2013/InfoSGAE\\_numero5/Dictamen\\_Impacto\\_real\\_del\\_aumento\\_del\\_IVA\\_en\\_el\\_sector\\_de\\_las\\_Artes\\_Escenicas.pdf](http://www.sgae.es/recursos/boletines/2013/InfoSGAE_numero5/Dictamen_Impacto_real_del_aumento_del_IVA_en_el_sector_de_las_Artes_Escenicas.pdf)
- PricewaterhouseCoopers (2012), Federación de Distribuidores Cinematográficos (Fedicine) y la Federación de cines de España-k (FECE) eskatutako txostena.  
El País-ek argitaratutako artikulua: [http://cultura.elpais.com/cultura/2012/08/01/actualidad/1343847516\\_602837.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2012/08/01/actualidad/1343847516_602837.html)
- Asociación de Promotores musicales (2013) *Anuario de la Música en vivo 2013*.  
Online eskuragarri: <http://apmusicales.com/PDF/Anuario2013.pdf>
- Grup Enderrock i l'Associació Professional de Representants, Promotors i Mànagers de Catalunya (ARC) (2013) *Anuari 2013 de la Música en Catalunya*.  
Online eskuragarri dagoen aipamena: <http://www.enderrock.cat/noticia/8297>
- Sociedad General de Autores y Editores (2013) *Anuario SGAE 2013*.  
Online eskuragarri: <http://www.anuariosgae.com/anuario2013/home.html>





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA